EUSKADIKO ORKESTRA

Fundación BBVA



Euskadiko Orkestrak Aita Donostiaren *La vie profonde de Saint François d'Assise* berreskuratuko du Parisko estreinaldiaren mendeurrenean

Euskadiko Orkestrak 26/27 Denboraldiko bigarren programa sinfonikoa aurkezten du, Aita Donostiaren *La vie profonde de Saint François d'Assise* obra protagonista duena. Tradizioa eta garaiko musika-abangoardiako hizkuntzak uztartzeko gai izan zen konpositorearen ikuspegi eszenikoa berraurkitzea ere ahalbidetuko du berreskuratze honek.

BBVA Fundazioaren babes esklusiboa duen musika-proiektu berri hau mugarri bat da euskal musika-ondarearen aintzatespenean, eta eragile ugari inplikatu ditu.

Kontzertuak azaroaren 6tik 11ra bitartean izango dira Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruñean, eta sarrerak salgai daude 10 eurotik aurrera.

Euskadiko Orkestrak 2026/27 Denboraldi Sinfonikoko bigarren kontzertu-programa aurkezten du, *'Aita Donostia. La vie profonde de Saint François d'Assise'* izenburupean. Kontzertuak datozen egunotan izango dira ohiko lau hiriburuetan: ostiralean, **azaroak 6**, **Donostiako Kursaal Auditorium**ean; larunbatean, **azaroak 7**, **Euskalduna Bilbao**n; astelehenean, **azaroak 9**, berriz ere **Kursaal Auditorium**ean; asteartean, **azaroak 10**, **Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioa**n; eta asteazkenean, **azaroak 11**, **Iruñeko Baluarte Auditorium**ean. Kontzertu guztiak **19:30**ean izango dira.

Estreinaldia, ondorengo interpretazioak eta gaur egungo berreskurapena

Aita Donostiak *Illustrations Musicales pour La vie profonde de Saint François d'Assise* konposatu zuen 1925 eta 1926 bitartean Henri Gheonek idatzitako antzezlanerako. Obra eszenikoki 1926an estreinatu zen, Parisko Theatre des Champs-Elyseesen, azaroaren 1ean eta 6an, San Frantzisko Asiskoaren heriotzaren zazpigarren mendeurrenaren urtean.

1933tik 1936ra bitartean, *Bizitza sakona* berreskuratzeko hainbat saiakera egin ziren, tartean Euzko Abesbatza–Saski Naskik Donostian egindakoa, baina Gerra Zibilak zapuztu zuen azken hori. 1986an, konpositorearen jaiotzaren mendeurrenean, Errenteriako Musikastek obra berreskuratu zuen, Jose Luis Ansorenaren narrazio-proposamen batekin, Andra Mari Abesbatzarekin eta Euskadiko Orkestrarekin, Luis Izquierdoren zuzendaritzapean lehenik eta, hilabete batzuk geroago, Odon Alonsoren zuzendaritzapean, formatu berrikusian eta Euskadiko Orkestraren Denboraldi Sinfonikoan.

Oraingo honetan, obraren 1926ko estreinaldiaren mendeurrena dela-eta, **Josu Okiñena**ren edizio kritiko berrian etzungo dugu. Bertsioak Gheonek berak laburtutako testua erabiltzen du. **Eresbil**ek babesten duen garrantzi handiko ondare-berreskuratze honen gidari **Ernest Martinez Izquierdo** izango da, **Annie Dutoit-Argerich** aktorearekin, **Luken Munguira** tenorrarekin eta **Easo** eta **Easo Gazte** abesbatzekin batera; horrez gain, **Fernando Bernues** arduratuko da eszena-zuzendaritzaz, **David Ferre** dramaturgia-zuzendaritzaz eta **David Bernues** argiztapenaz. Errepresentazio berri hori eta berreskuratze hori mugarri dira, eta euskal kultura-ondarearentzat errekonozimendu garrantzitsua izango dira.

Obra musikala

1926ko lau ordutik gorako emanaldi haietarako, Aita Donostiak ordubeteko musika sortu zuen, batez ere funtzionala, betiere Gheonen testuaren zerbitzura, baina, aldi berean, asmo handikoa, orkestraz gain hiru abesbatza erabili izanak erakusten duen bezala; eta ausarta, erabat garatutako hizkuntza sinfonikoa baitzuen, Frantziako abangoardietatik hurbilekoa, eta zenbaitetan politonalitatea edo bitonalitatea bezalako tekniketara hurbiltzen zena. Aita Donostiak, batez ere, San

Frantzisko Asiskoaren eraldaketa-prozesuaren dimentsio espirituala indartu nahi izan zuen bere heriotzaren zazpigarren mendeurrenean.

Aita Donostiak idatzi zituen ***Ilustrazioak***, jatorrian, antzezlan zabalean zehar 21 unetan txertatzeko pentsatutako zatiak eta musika-piezak dira. Edizio kritiko berriak 25 ilustrazio musikal ditu, 5 koadrotan banatuta.

Testuak frantsesez

Testua, bai antzezlanarena bai Aita Donostiaren jatorrizko partiturarena, frantsesez da, latinezko zati batzuekin. Obra sortu zeneko giro kulturalean hobeto kokatzeko, testu musikalen interpretazioa eta narrazioa jatorrizko frantsesez egingo da.

Iradokizun eszenikoa, Fernando Bernuesen esku

Eszena diseinatzearen arduradun izan den Fernando Bernuesentzat *"Aita Donostiak* La vie profonde de Saint François d'Assise *ikuskizunerako konposatu zuen musika aparta berrikusteak, erabateko eszenaratze bat izan gabe, partitura adierazkor honen jatorria erreferentziatzen zuen iradokizun eszeniko bat eskatzen zuen. David Ferreren dramaturgiapean Annie Dutoit-Argerichek interpretatuko dituen Henri Gheonen testuek eta ikus-entzunezko baliabideek emango dute 'antzerki lurrina', kontzertuan zehar iradokitzen dena eta duela ehun urte obra berezi eta bikain honen konposizioa inspiratu zuena".*

"Narratzaileak, beraz, funtsezko lekua du pieza honen sorkuntzan. Ez du musika-zatien arteko elementu osagarri gisa jokatzen, baizik eta ezagutza-esperientzia bat eraikitzeko tresna gisa, San Frantzisko Asiskoaren ibilbide espiritual eta humanoan zehar lagundu, azaldu, gogora ekarri eta gidatzen duen figura gisa. Bere presentzia ez da pertsonaia bat ordezkatzen duen aktore batena, herentzia kultural eta espiritual bat transmititzen duenarena baizik".

Aita Donostia (1886-1956)

Jose Gonzalo Zulaica, **Aita Donostia** izenez ezaguna, hamar urte zituela sartu zen Baztango haranean (Nafarroa) dagoen Lekarozko kaputxinoen ikastetxean. Bertan egin zituen ikasketak, eta irakasle aritu zen 1918ra arte. Urte hartan, irakaskuntza-lanetatik libre geratu zen, bere musika-jarduera zabaltzeko.

Madrilen hilabete batzuk eman ondoren (bertan abesbatza sortu zuen eta Pau Casals edo Wanda Landowska musikariak ezagutu zituen, besteak beste), 1920an Parisera joatea erabaki zuen, bere ezagutzak sendotzeko eta garai hartan Frantziako hiriburuan biltzen zen musika-modernitatera hurbiltzeko. Parisen Maurice Ravelekin harremanetan jarri zen, baita Henri Gheon antzerkigilearekin ere.

Aita Donostiak berak, ordurako Lekarozera itzulia, proposatu zion antzerkigileari bere ordenako zaindari San Frantzisko Asiskoaren figurara gerturatzea, 1926an haren heriotzaren zazpigarren mendeurrena oroitzeko. Hortik jaio zen *Illustrations Musicales pour La vie profonde de Saint François d'Assise* eta bere estreinaldia.

Proiektu musikal hau berreskuratzea mugarri garrantzitsua da euskal musika-ondarearen aintzatespenean, eta eragile ugari inplikatu ditu; BBVA Fundazioaren babes esklusiboa du.

BBVA Fundazioa: ezagutza zientifikoa eta kulturala bultzatzen

Ezagutza zientifikoa eta sorkuntza kulturala bultzatzeko eta sustatzeko konpromisoaren barruan, BBVA Fundazioak arreta berezia eskaintzen dio musika akademikoari, eta musikaren ekosistema osoari heltzen dio modu integralean: prestakuntzari, sorkuntzari, zabalkundeari eta bikaintasunaren aintzatespenari.

Gazteen talentua eta konposizioa sustatzeko, prestakuntza-ekimenak eta ikerketa sortzailerako laguntzak eskaintzen ditu. Alde batetik, Leonardo bekei esker, proiektu berritzaileak gauzatu daitezke; besteak beste, musika-, eszena- eta opera-lanak konposatu eta estreinatzeko proiektuak, bai eta musika-ondarea berreskuratu eta mundu mailako lehen grabazioetan jasotzekoak ere. Bestetik, interprete berrien garapena sustatzen du, Reina Sofia Goi Mailako Musika Eskolako Biola Katedra bezalako lankidetzen bidez.

Sustapen-lan hori eremu publikora ere zabaltzen da, herrialde osoko antzoki nagusietako batzuekin (hala nola Teatro Real, Gran Teatre del Liceu eta ABAO Bilbao Operarekin) eta erreferentziazko orkestrekin (Euskadiko Orkestrarekin, besteak beste) duen lankidetza-sare sendoaren bidez. Ondare hori gizartearengana hurbiltzeko, Fundazioak erreferentziazko bakarlari eta taldeekin doako kontzertu-zikloak antolatzen ditu, errepertorio klasikotik abangoardia garaikideraino. Fundazioaren Musika Denboraldiak ere leku nabarmena eskaintzen die interpretatzaile gazteei, baita sortzaile berriei eta ibilbide sendotua duten konpositoreei ere. Eskaintza hori osatzeko, dibulgazio-hitzaldiak eta argitalpen espezializatuak eskaintzen ditu, konposizioaren garai nagusietan sakontzeko edo egile handien lengoaia argitzeko.

Bikaintasun musikalari egindako nazioarteko aitortza osatzeko, Musikako eta Operako Jakintzaren Mugak Sariak eskaintzen ditu. BBVA Fundazioak urtero ematen duen sari horren bidez, munduko musika-eszenan eraldaketa handiena eragin duten ibilbideak aitortzen dira.